

Lekeitioko Zapran Gaoz jaialdian birziklatzeko erraztasunak jarri ditu Lea-Artibaiko Amankomunazgoak

Eredugarritzat jo zuen Lea-Artibaiko Amankomunazgoak Ondarroako Antxoa Egunean udalak hondakinak bereizteko egindako lana, eta eredu berdina jarraitu du igandean ospatuko den Zapran Gaoz eskola publikoaren jaialdia dela eta.

Lea Artibaiko Amankomunazgoa udaleko eta Zapran Gaoz jaialdiko antolatzaileekin bildu da birziklapena errazteko neurririk eraginkorrenak bilatu asmoz aholkularitza eskaintzeko.

Jai egun handietan zabor handia sortzen dela jakinik, esfortzu berezia egin behar dute erakundeek herritarrei erraztasunak jartze aldera, eta bide horretan Amankomunazgoak bere bitartekoak eskaini behar dituela uste du.

Edukiontzi gehiago jartzeaz gain, multzoka leku ezberdinetan jartzea ezinbestekoa da Amankomunazgoarentzat. Jaialdiko lau guneetan egongo dira sailkapen puntuak errefusa, ontzi arinak eta papera eta kartoia bereizteko. Txosnetan berriz, organikoa eta beiraren edukiontziak ere egongo dira. Aipatu sailkapen puntuetan, ez da beirarik ibiliko eta organikoa soilik jatekoa izatean gutxieneko bat izatea espero da.

Herri bazkarian erabiliko diren plater, sardexka eta koilarak biodegradagarriak izango dira eta edalontziak berrerabilgarriak.

Lea-Artibaiko Amankomunazgoak herritarrei jarrera aktiboa izan dezaten gonbidatzen die. Rakel Elu lehendakariaren arabera "esfortzu txiki batek emaitza handiak ematen ditu. Keinu bat besterik ez da, eta hondakinak gutxitzeaz gain, herria garbiago mantentzea lortzen dugu, festaz ere gehiago gozatuz".

